

JAKINen zilarrezko ezteiak direla eta

Gure aldizkariaren zilarrezko ezteiak ospatzeko egin genuen lehen lana JAKIN bera aztertzea eta beronen historia ezagutzera ematea izan zen. 21. zenbakian eman genuen gure azterketaren emaitza; zenbaki osoa JAKINi berari eskaini genion: *JAKIN 25 urte euskal kulturari*.

Iragana aztertu eta aurkeztu ondoren, aurrera begira, urrezko ezteiak prestatzen jarri ginen derrefente: *Zergatik ez beste 25 gutxienez?*

JAKIN: 25 urte euskal kulturari. Zergatik ez beste 25 gutxienez? slogan bikoitz honekintxe kanpaina bat muntatu genuen, etorkizuna errealtate bihurtzeko bidea eskainiz: *Harpidedun egin zaituzte*.

Promozio-ekinaldi honek helburu bat bakarra, eta bera zuzena, zuen, harpidedun berriak inguratzea, alegia. Eta bai: etorri zaizkigu, eta ez gutxi. 360 abonatu berri ditugu oraingoz. Askoda. Harrigarria. Pozez eta esker onez gaituzue.

Kanpaina antolatzeko orduan, bi eratara jokatu izan dugu. Batetik, hainbat eta hainbat helpidetara (gizabanako, talde zein instituzioenetara) harpidetza-txartelak guk geuk bulegotik zuzenean bidali izan ditugu. Eta bestetik, AEK, EHE eta beste batzuei esker, kaleetan eta leku publiko zenbaitetan gure hormairudi eta txartelak banatu izan ditugu. Laguntza handia izan dugu aipatu

hauen aldetik. Eta baita prentsaren aldetik ere, batipat *Argia*, *Egin*, *Punto y Hora* eta *Radio San Sebastián* komunikabideen doaneko laguntza estimagarria izan bait dugu. Baina, jakina, laguntzak aipatzean eta esker ona ematean, bi gizon jarri behar ditugu puntaren puntan: Bittor Artola eta Enrike Ibabe, *Aurman*-eko langileak.

Esan bezala, ba, ekinaldi honek emandako fruituekin pozik gaude, oso pozik. Baina ez dugu kanpaina ixten. Lehen fasea amaitutzat ematen dugu. Bigarren fasea irekitzen dugu orain.

Bigarren ekinaldi honetan abonatuak bakarrik zuzentzen gatzazkie, laguntza eske. Are gehiago laguntzeko eskatzen diegu. Nola? Harpidedun izatea bera da guretzat lehen laguntza, noski. Eta hala ere, gehiago eskatzen ausartzen gara. Harpidedunari JAKIN hartzea ez-eze, JAKIN zabaltzea ere eskatzen diogu. Zein JAKINen zabaltzaile hoberik gure aldizkaria ezagutzen eta estimatzen duena baino? Hori bateko. Eta besteko, ahal duen harpidedunari, urteko abonamendu arrunta baino gehiago ematerik balu, eman dezala proposatzen diogu. Bigarren kuota honen formula harpidedunek bere proposatu izan digute. Eta guk egoki deritzagu horri. Horrela, urteko harpidetza-saria, gehiegi igo gabe, 1.500 pta.tan utz dezakegu; eta bigarren kuota bat jarri, borondatezkoa hau, nahi duenarentzat, ahal duenarentzat.

Jadanik gure harpidedunak badaki: gure helburua, gogoa eta ametsa aldizkari eginago eta hobe bat lortzea da. Harpidetza-txartelean hitz ematen genuenez, «irabazi oro gure aldizkaria hobetzeko izango da oso-osorik». Lehen eta orain. Ez dugu hitza jango. Hori beste helbururik ez dugulako ausartzen gara zuen laguntza eskatzera: harpidedun berriak egin ditzazuela, eta —ahal duzue— diruz lagun diezaguzuela.

Baietz lortu denon artean!